

2010eko martxoan bidaiarien sarrerak % 13 gehitu dira

2009ko martxoarekin alderatuta, gaua igaro dutenen kopurua % 10 gehitu da

Eustaten datuen arabera, 2010eko martxoan 161.885 bidaiarik hartu dute ostatu Euskal AEko hotel-establezimenduetan, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino 18.000 gehiagok; horrenbestez, % 13ko gehikuntza izan da. Arabara heldutako bidaiarien kopurua % 24 gehitu da, Gipuzkoara heldutakoen kopurua % 17 eta Bizkaira heldutakoena % 6.

Estatutik etorritako bidaiari kopuruak % 11 egin du gora, eta atzeritik etorritakoen kopuruak % 17. Estatutik etorritako bidaiarien kopurua hiru lurraldeetan gehitu da. Araban eta Gipuzkoan % 18 gehitu da kopuru hori eta Bizkaian % 4. Atzeritar kopurua ere gehitu da hiru lurralde historikoetan: Arabara etorritakoen kopurua % 51 gehitu da, Gipuzkoara etorritakoena % 17 eta Bizkaira etorritakoena %11.

Estatuko bidaiarien artean, etorritako bidaiarien ehunekorik handienak Madril, Galizia, Asturias, Katalunia, Gaztela eta Leon eta Kanarietatik etorritakoenak izan dira. Soilik gutxitu da Andaluzia, Balearrak, Kantabria eta Ceuta eta Melillatik etorritakoen kopurua. Atzeritarren artean, bidaiari gehiago etorri da Frantziatik, Belgikatik, Alemaniatik, Erresuma Batutik eta Iberoamerikatik, besteak beste; baina Finlandiatik, Italiatik, Greziatik eta Portugaldik etorritakoen kopurua gutxitu egin da.

2010eko martxoan 289.054 gau igaro dituzte bidaiariek; hau da, aurreko urteko martxoarekin alderatuta gaua igaro dutenen kopurua % 10 gehitu da, guztira ia 25.000 gau gutxiago igaro baitituzte. Igarotako gauek urte batetik bestera bilakaera positiboa izan dute hiru lurraldeetan: Araban % 21 gehitu da kopuru hori, Gipuzkoan % 16 eta Bizkaian % 2.

Batez besteko egonaldiaren iraupena laburtu egin da Euskal AE osoan: aurreko urteko martxoan batez besteko hori 1,84 egunekoa izan zen eta aurtengoa 1,79 egunekoa. Indizeak hiru lurraldeetan egin du behera. Bizkaian bidaiariek batez beste 1,88 egun igaro zituzten 2009. urteko martxoan, eta aurtengo hilabete berean 1,80. Araban 1,77 egun igaro zituzten aurreko urteko martxoan baina 2010eko martxoan 1,73; Gipuzkoan 1,80 egun igaro zituzten aurreko urteko martxoan eta aurtengo martxoan 1,79 egun.

Plazen okupazio mailak % 1 egin du gora, 2010eko martxoan % 35,47koa izan baita. Igoera hori Araban eta Gipuzkoan eman da, % 4 eta % 12 hurrenez hurren. Arabako okupazioa % 32,13 izan da eta Gipuzkoakoa % 37,43. Bizkaiko plazen arabera okupazio mailak % 6 egin du behera: iazko martxoan % 37,52 izan zen eta aurtengo martxoan %35,16.

NEKAZARITZA-TURISMOKO ESTABLEZIMENDUAK***Euskal AEra etorritako bidaiari kopurua % 15 igo da eta igarotako gau kopurua % 5, 2009ko martxoarekin konparatuta***

Joan den martxoan 9.827 bidaiarik hartu dute ostatu Euskal AEko nekazaritza-turismoko establezimenduetan, aurreko urteko hilabete berean baino % 15 gehiagok. Gainera, hiru lurraldeetan izan dira emaitza positiboak. Bizkaian % 21 igo da kopurua, Gipuzkoan % 17 eta Araban % 4. Estatutik etorritako bidaiari kopurua % 18 igo da Euskal AEn: % 23 igo da Bizkaian, % 20 Gipuzkoan eta % 6 Araban. Euskal AEn % 24 atzerritar gutxiago izan da; Gipuzkoan eta Araban horien kopurua asko gutxitu da baina Bizkaian horien ehunekoez ez dute hainbeste egin behera.

Martxoan, guztira, 21.721 gau igaro dituzte bidaiariek Euskal AEko nekazaritza-turismoko establezimenduetan. Beraz, aurreko urteko hil beraren aldean % 5 gehitu da gau kopurua. Urte arteko hazkunde tasak positiboak izan dira hiru lurraldeetan: Bizkaian % 15 gehitu da kopuru hori, Araban % 3 eta Gipuzkoan % 2.

Bidaiari bakoitzak Euskal AEn igarotako batez besteko aldia gutxitu egin da, 2009ko martxoaren aldean: aurreko urtean 2,41 egun igaro zituzten batez beste eta aurten, martxoan, 2,21 egun. Bilakaera negatibo hau hiru lurraldeetan eman da. Gipuzkoan % 13 egin du behera kopuruak: 2009ko martxoan 2,48 egun igaro zituzten batez beste eta 2010eko martxoan 2,16 egun. Bizkaian iazko martxoan 2,30 egun igaro zituzten bidaiariek batez beste eta aurtengo martxoan 2,19 egun; azkenik, Araban kopuruak behera egin du, iazko martxoan 2,40 egun igaro zituztelako batez beste baina 2010eko martxoan 2,37 egun.

Plazen arabera okupazio mailak ez du aldaketarik izan (% 0): % 18,32tik % 18,35era igaro da Bizkaian gora egin duelako kopuruak (% 13) nahiz eta Araban (-% 5) eta Gipuzkoan (-% 4) behera egin.

1. Taula: Hileko emaitzak

	EUSKAL AE					ARABA					BIZKAIA					GIPUZKOA				
	03 2010	(%)	03 2009	(%)	Δ %	03 2010	(%)	03 2009	(%)	Δ %	03 2010	(%)	03 2009	(%)	Δ %	03 2010	(%)	03 2009	(%)	Δ %
HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK																				
GAUALDIAK	289.054	100	263.829	100	10	43.848	100	36.266	100	21	135.011	100	132.828	100	2	110.195	100	94.735	100	16
Estatukoak	212.303	73	189.732	72	12	34.438	79	29.181	80	18	94.688	70	90.145	68	5	83.177	75	70.406	74	18
Atzerrikoak	76.751	27	74.097	28	4	9.410	21	7.085	20	33	40.323	30	42.683	32	-6	27.018	25	24.329	26	11
Hiriburua	184.230	64	170.414	65	8	30.660	70	27.196	75	13	91.259	68	91.170	69	0	62.311	57	52.048	55	20
Litoral	29.862	10	24.888	9	20	-	-	-	-	-	9.396	7	8.617	6	9	20.466	19	16.271	17	26
Barnealdea	74.962	26	68.527	26	9	13.188	30	9.070	25	45	34.356	25	33.041	25	4	27.418	25	26.416	28	4
BIDAIAIEN SARRERAK	161.885	100	143.765	100	13	25.335	100	20.514	100	24	74.950	100	70.753	100	6	61.600	100	52.498	100	17
Estatukoak	122.024	75	109.760	76	11	20.117	79	17.056	83	18	55.356	74	53.107	75	4	46.551	76	39.597	75	18
Atzerrikoak	39.861	25	34.005	24	17	5.218	21	3.458	17	51	19.594	26	17.646	25	11	15.049	24	12.901	25	17
Hiriburua	103.602	64	92.406	64	12	16.223	64	15.575	76	4	50.496	67	46.274	65	9	36.883	60	30.557	58	21
Litoral	15.173	9	13.813	10	10	-	-	-	-	-	5.465	7	5.163	7	6	9.708	16	8.650	16	12
Barnealdea	43.110	27	37.546	26	15	9.112	36	4.939	24	84	18.989	25	19.316	27	-2	15.009	24	13.291	25	13
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,79		1,84		-3	1,73		1,77		-2	1,80		1,88		-4	1,79		1,80		-1
BETETZE-MAILA PLAZAKA	35,47		34,97		1	32,13		30,82		4	35,16		37,52		-6	37,43		33,51		12
Hiriburua	40,29		40,74		-1	32,28		34,48		-6	41,38		43,97		-6	43,98		39,39		12
Litoral	33,59		28,19		19	-		-		-	25,15		24,47		3	39,70		30,66		29
Barnealdea	27,89		27,65		1	31,80		23,37		36	27,25		29,64		-8	27,10		27,09		0
BETETZE-MAILA GELAKA	44,57		45,69		-2	40,19		41,02		-2	46,22		50,91		-9	44,44		40,85		9
Hiriburua	51,23		54,15		-5	41,49		47,05		-12	54,88		60,26		-9	52,38		48,39		8
Litoral	39,20		34,02		15	-		-		-	31,46		30,75		2	44,42		36,13		23
Barnealdea	34,98		35,35		-1	36,77		28,25		30	35,34		39,27		-10	33,90		33,47		1
NEKAZALTURISMOA																				
GAUALDIAK	21.721	100	20.592	100	5	4.677	100	4.562	100	3	5.851	100	5.104	100	15	11.193	100	10.926	100	2
Estatukoak	20.448	94	18.532	90	10	4.478	96	3.982	87	12	5.296	91	4.568	89	16	10.674	95	9.982	91	7
Atzerrikoak	1.273	6	2.060	10	-38	199	4	580	13	-66	555	9	536	11	4	519	5	944	9	-45
BIDAIAIEN SARRERAK	9.827	100	8.535	100	15	1.976	100	1.904	100	4	2.675	100	2.217	100	21	5.176	100	4.414	100	17
Estatukoak	9.430	96	8.015	94	18	1.905	96	1.802	95	6	2.525	94	2.047	92	23	5.000	97	4.166	94	20
Atzerrikoak	397	4	520	6	-24	71	4	102	5	-30	150	6	170	8	-12	176	3	248	6	-29
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2,21		2,41		-8	2,37		2,40		-1	2,19		2,30		-5	2,16		2,48		-13
BETETZE-MAILA PLAZAKA	18,35		18,32		0	19,54		20,55		-5	15,20		13,47		13	20,01		20,88		-4
BETETZE-MAILA GELAKA	20,09		21,42		-6	22,05		23,70		-7	16,51		16,27		1	21,79		24,29		-10

Iturria: EUSTAT. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxa: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: **ETHI - Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta**

Datu-bankua: **ETHI - Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta**